

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 39/2023 Foru Dekretua, abuztuaren 1ekoa Onestea hauteskundeetako gastuetarako dirulaguntza eta aurrerakinen araubidea, 2023an Batzar Nagusietarako egindako hauteskundeen emaitzen arabera

Hauteskundeetako gastuen finantzaketa publikoak, botere publikoek partaidetza politikoari eta herri borondatea eratzeko prozesuari emandako laguntza eta babes moduan jasotzen da hauteskunderi buruzko legerian, eta hiru urrats desberdinetan araturik dago. Lehenengoa, hauteskundeen aurrekoa, hauteskunde aurreko aurrerakinak emanez, aurreko hauteskunde prozesuan lortutako emaitzetan oinarrituta; fase hori Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 4ko 11/2023 Foru Dekretuak arautzen du (apirilaren 10eko ALHAO, 42. zenbakia).

Bigarrena, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 133. artikuluan jaso, aurrerakinak ematean datza. Aurrerakin horiek ALHAOn argitaratutako hauteskunde emaitzen arabera Batzar Nagusietarako hauteskundeetan gutxienez batzarkide bat lortu duten alderdi politikoei dagokien dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 90 izango dira, hauteskunde aurretik lortutako aurrerakina kenduta, hala badagokio.

Hirugarren fasea Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egokitasun irizpena eman ondoren izango da, eta lortutako emaitzen arabera egingo da dirulaguntzaren likidazioa, aurreko aurrerakin guztiak kenduta, halakorik eman bada.

Hauteskunde aurreko aurrerakinak araututa eta ordainduta, egokia da orain hauteskundeetako bigarren faseko hauteskunde osteko dirulaguntzen eta aurrerakinen araubidea ezartzea, erreferentziazat hartuta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako Hauteskunderi buruzko martxoaren 27ko 1/1987 Legean eta Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan xedatutakoa.

Horrela, 1/1987 Legearen 11. artikulua hauteskunde gastuen finantzaketa publikoa ezartzen du, lurralde historiko bakoitzaren aurrekontuen kargura dirulaguntza bat emanez. Laguntza hori bi arauen arabera zehazten da: 1) hautatutako batzarkide bakoitzeko zenbateko finko bat, Eusko Legebiltzarrerako egindako azken hauteskundeetan adierazitako jarleku bakoitzeko dirulaguntzaren ehuneko berrogeikoa; eta 2) hautagai zerrenda bakoitzak lortutako boto bakoitzeko udal hauteskundeetarako finkatutako zenbateko bera, betiere gutxienez kideetako bat batzarkide hautatu bada.

Lehen kalkulua egiteko, Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 2020ko maiatzaren 20ko Agindura jo behar da. Agindu horrek, Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetarako, 27.939,41 euroko dirulaguntza ezarri zuen jarleku bakoitzeko. Horrek berekin dakar hautatutako batzarkide bakoitzeko dirulaguntza 11.175,76 euro izango dela.

Bigarren arauaren ondoriozko kalkulari dagokionez, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 193. artikuluan arabera (urtarrilaren 28ko 2/2011 Lege Organikoak emandako idazkeraren arabera), hauteskunde jarduerak sortzen dituzten gastuei 0,54 euroko dirulaguntza emango zaie hautagai zerrenda bakoitzak lortutako boto bakoitzeko, betiere hautagai zerrenda hori osatzen duten pertsonetako bat hautatu bada. Kopuru hori berretsita geratu da apirilaren 4ko HFP/329/2023 Aginduan.

Bestalde, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 133. artikuluan jasotakoarekin bat etorritik, hauteskunde osteko aurrerakinak lortzeko, beharrezkoa da, alde batetik, hauteskundeetako diru sarreraren eta gastuen kontabilitate zehatza eta dokumentatua aurkeztea Kontuen Epaitegian, eta, bestetik, hauteskunde aurreko eta hauteskunde ondoko dirulaguntzen aurrerakinaren zenbateko aurreratuaeren ehuneko 10eko banku abala aurkeztea.

Gauzak horrela, Vitoria-Gasteizko eta Amurrioko eskualdeko hauteskunde batzordeek egindako eta ALHAOren 72. alean, ekainaren 21ean, argitara emandako boto kontaketa ofizialen emaitzak ikusita, 2023an Arabako Biltzar Nagusietarako hauteskundeetan gutxienez batzarkide bat lortu duten alderdi politikoek eta hauteskunde koalizioek ondoko taulan ageri diren dirulaguntzak eta hauteskunde aurrerakinak eskuratzeko eskubidea dute. Bertan, gainera, dagoeneko aurreratutako kopuruak, hala dagokionean, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak kontuak baliozkotzen dituen garaian ordaintzeko daudenak jasotzen dira:

ALDERDI POLITIKOA EDO HAUTESKUNDE KOALIZIOA PARTIDO POLITICO O COALICIÓN ELECTORAL	IFKBP	OFKBP	BOTO KOPURUA / N° VOTOS	BOTO BAKOTZERO POR VOTO	BOTO BAKOTZERO GUZTIRA / TOTAL POR VOTOS	JARLEKU KOPURUA / N° ESCAÑOS	JARLEKU BAKOTZERO / POR ESCAÑO	JARLEKU BAKOTZERO GUZTIRA / POR ESCAÑO	DIRULAGUNTZA GUZTIRA BOTOEN ERORAK / SISTEMAREN ERORAK + ESCAÑOS	DIRULAG. OSOAREN %80 / 80% TOTAL SUBVENCIÓN	HAUTESKUNDE AURREKO AURREAKINA / ANTIGUO PREELECTORAL	HAUTESKUNDE ONDOKO AURREAKINA / POSTELECTORAL	BERRI BETHO		
													LINDAZIONA / LIGACION DEFINITIVA (FALTAREN %10/ IVA PENDIENTE)	Euroa	
2023															
EAJ-PNV	G48103956/10006867		38.467,00	X	20.772,18	15	X 11.175,76 =	167.636,40	188.408,58	169.567,72	33.883,01	135.684,71	18.840,86		
FH BILDU	G71206700/10006933		37.207,00	X	20.091,78	14	X 11.175,76 =	156.460,64	176.552,42	158.897,18	40.535,91	118.361,27	17.655,24		
PSE-EE (PSOE)	G28477727/10006833		23.263,00	X	12.562,02	9	X 11.175,76 =	100.581,84	113.143,86	101.829,47	36.730,96	65.098,51	11.314,39		
PARTIDO POPULAR	G28570927/10006835		24.117,00	X	13.023,18	9	X 11.175,76 =	100.581,84	113.605,02	102.244,52	29.453,55	72.790,97	11.360,50		
ELKARREKIN PODEMOS-EZKER ANITZA/IZ-BERDEAK EQUO- ALIANZA VERDE	V13657721/10029405		8.129,00	X	4.389,66	3	X 11.175,76 =	33.527,28	37.916,94	34.125,25	14.927,41	19.197,84	3.791,69		
VOX	G13974456/10030653		4.503,00	X	2.431,62	1	X 11.175,76 =	11.175,76	13.607,38	12.246,64	0,00	12.246,64	1.360,74		
			146.240,00		73.270,44	51		569.963,76	643.234,20	578.910,78	155.530,84	423.379,94	64.323,42		

Dekretu hau izapidetzean, gorde dira Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuan jasotako printzipioak, arauen kalitate eta erregulazio onarenak, bai eta xedapen orokorrak egiteko prozedura ere.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.5 artikuluan jasotako aginduaren arabera, ekimen honek genero ikuspegia txertatzen du, ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorrekarekin.

Horregatik, Berdintasun, Euskera eta Gobernantza Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egingdako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hauteskunde ondoko aurrerakinak

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusietarako Hauteskundeei buruzko martxoaren 27ko 1/1987 Legearen 11. artikuluan arabera hauteskunde gastuak finantzatzeko dirulaguntzak jasotzeko eskubidea duten alderdi politikoek eta hauteskunde koalizioak dirulaguntzen zenbatekoaren ehuneko 90 eskatu ahal izango dute aurrerakin gisa, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren jarduerak amaitzen ez diren bitartean. Dirulaguntza horiei, foru dekretu honen azalpen zatian ezarritako irizpideekin bat etorritik, jasotako lehen aurrerakinaren zenbatekoa deskontatuko zaie.

Bigarrena. Hauteskundeen ondoko aurrerakinaren eraginkortasuna

1. Hauteskundeetako dirulaguntza aurreratzeko eskaera Arabako Foru Aldundian aurkeztu beharko da, eta, aurretik, hauteskundeetako diru sarrera eta gastuen kontabilitate zehatza eta dokumentatua aurkeztu beharko da Herri Kontuen Euskal Epaitegian, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 133. artikuluan aipatutako epe eta baldintzetan, eta aurkeztu izana egiaztatu beharko da, dagokion frogagiriaren bidez.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek, egoitza elektronikoaren bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/hauteskunde-gastuen-dirulaguntzak>) egiten den izapide espezifikoaren bitartez, telematikoki aurkeztera behartuta daude: pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak, elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko dutenak.

2. Alderdiek, koalizioek eta federazioek aurrerakin hori jaso ahal izateko, eskaerekin batera banku abala aurkeztu beharko da, aurreratutako guztizkoaren ehuneko 10ekoarena, eta, hala badagokio, baita hauteskunde aurretik jasotako aurrerakina eta hautetsiek batzarkide izaera osoa eta karguan benetan dihardutela modu frogagarrian egiaztatzen duen Batzar Nagusiek emandako ziurtagiria ere.

Abal hori aurkeztu ezean, eskaera izapidetuko da ordaindu beharreko zenbatekoaren ehuneko hori atxikita.

3. Esandako baldintzak beteta, Arabako Foru Aldundiak, aurrerakinaren eskabideak aurkeztu eta hurrengo 30 egunen barruan, haiek ordaindu eta Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordean hala kreditatutako administratzaile orokorren eskura ipiniko ditu, batzorde horri ez badiote jakinarazi dirulaguntzak beren osoan edo zati batean ordain dakizkiela izendatzen dituzten banku erakundeei, eman zaizkien aurrerakinak edo kredituak konpentsatzeko. Foru Aldundiak ordainketa egiaztatuko du esandako jakinarazpenean adierazten denaren arabera. Jakinarazpena ezin izango da ezeztatu kreditu erakunde onuradunaren baimenik gabe.

Hirugarrena. Dirulaguntzen likidazioa

Dirulaguntzaren likidazioa, emandako aurrerakinak deskontatu ondoren, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak hauteskunde kontabilitatearen egokitasunari buruzko irizpena eman ondoren egingo da.

Laugarrena. Kreditua esleitzea

1. Aurreko zehaztasunak betetzen dituzten alderdi politikoei eta hauteskunde koalizioak Biltzar Nagusietarako 2023ko hauteskundeengatik jaso ditzaketen hauteskunde ondoko aurrerakin gehieneko zenbateko osoa 423.379,94 euro da.

2. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak foru dekretu honen azalpen zatian zerrendatutako alderdi politikoei esleituko dizkie dekretuan bertan adierazitako zenbatekoak, eta horien gehieneko zenbateko orokorra 423.379,94 euro da, 02100. G/920021/48100061 Batzar Nagusietako hauteskundeetarako dirulaguntzak izeneko aurrekontu partidaren kargura, Arabako Lurralde Historikoaren 2023ko aurrekontua gauzatzeko aurreikusia. Zenbateko horiek alderdi politikoen eta koalizioen esku jarriko dira.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abuztuaren 1a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatua

JONE BERRIOZABAL BÓVEDA